


Funtsezko elkarteak

Funtsezko elkarteak negozio-eredu batek funtzionatzea ahalbidetzen duten hornitzaile- eta bazkide-sareak osatzen dituzte. Baliabideak eskuratzeko eta arriskuak murrizteko balio dute. Baita ere enpresa batek aliantzak sor ditzake beste enpresa batzurekin.

Aurreko paragrafoarekin lotuta, esan behar dugu oso garrantzitsuak direla gure **bazkide eta hornitzaile nagusiak**, gure aplikazioa hobetu dezan. Horren zergatia hurrengo paragrafoetan adieraziko ditugu:



Lehendabizi, **dirua** behar dugu. Dirua lortzeko, maileguak eskatuko ditugu bankuari gero epe luzean ordaintzeko. Horrela, denbora izango dugu gure proiektua prestatzeko eta dirua izango dugu honek martxan jartzeko.



Denok dakigu ez dagoela ezta enpresa batek baliabide guztiak edukitzen duenak edo edozein jardura egiteko bere kabuz egin dezakeena. Horregatik, gure aplikazioa sortzeko, **programa informatiko** bat erosi beharko dugu, eta programa hori egin duen enpresarekin mantendu beharko dugu kontaktua, aplikazioa hobetzeko, eguneratzeko eta akatsei aurre egiteko.



Azkenik, gure negozio-eredua optimizatzeko, antzeko nitxoak eta interesak duten enpresekin akordioak egin dezakegu, kostuak murrizteko eta negozio-eredua optimizatzeko. Baita ere, **jendea subkontratatu**ko dugu gure aplikazioa gomendatzeko eta publizitate ona izateko, eta nitxo batzuetan nabarmenduko gara: bereziki, erretiratuetan.